

## **Ekonomiako eta ingurumeneko adituek Urdaibairen indarberritzea aztertuko dute *Alkartasuna Fundazioak Gernikan eta Bermeon antolatutako jardunaldi batzuetan***

***‘Urdaibairen indarberritze sozioekonomikoa. Ekonomia Berria. Biosferaren Erreserbetako esperientzia arrakastatsuak’*** izenburupean, **Alkartasuna Fundazioak** Busturialdearen garapen iraunkorrari buruzko bi jardunaldi antolatuko ditu, Gernikan urriaren 23an (larunbata) eta Bermeon azaroaren 13an (larunbata).

Ekonomiako eta ingurumeneko adituek eskualde babestu horren aurrerabidea bermatzeko gakoak aztertuko dituzte, lehiakortasun ekonomikoa eta ondare kultural, arkeologiko eta naturalaren zaintza eta zabalkuntza uztartuz, garapen iraunkorreko estrategia baten barruan.

11:00etatik aurrera Gernikako Elai Alai Aretoan urriaren 23an (larunbata) izango den lehen jardunaldian, **Ramón Zallo** EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko komunikazioko katedradunak Urdaibaiko Guggenheim berriaren proiektua aztertuko du. **Miren Onaindia** Garapen Iraunkorrari buruzko UNESCO Katedraren koordinatzaile nagusi eta UPV/EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultateko ekologiako irakasleak Biosferaren Erreserbetako esperientzia arrakastatsuak aztertuko ditu. Eta **Antxon Olabe** ekonomialari eta York-eko Unibertsitateko (Erresuma Batua) Ekonomia eta Ingurumen Kudeaketako masterrak Biosferaren Erreserba indar eragile gisa Euskal Herriaren trantsizioan ingurumen-arloan iraunkorra den garapen-eredu baterako bidean gaia jorratuko du.

Jendearentzako irekiak izango diren bi jardunaldietako moderatzailea **Sabin Intxaurre** izango da, Alkartasuna Fundazioaren lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburu ohia.

Azkenik, azaroaren 13an Bermeoko Nestor Basterretxea Aretoan, oraingoan ere 11:00etan, izango den bigarren jardunaldian, **Joseba Barandiaran** analista ekonomikoak Urdaibairentzat finantza-krisialditik atera beharreko ikasbideak azalduko ditu, eta **Ana Oregi** Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Uren sailburuorde ohiak eskualdearen babes bereziaren eta eskualdearen aurrerabide sozioekonomikoaren arteko bateragarritasuna aztertuko du.

## **Expertos economistas y en medio ambiente analizan la revitalización de Urdaibai en unas jornadas organizadas por la *Alkartasuna Fundazioa* en Gernika y Bermeo**

Bajo el título *‘Revitalización socioeconómica de Urdaibai. Nueva Economía. Experiencias de éxito en Reservas de la Biosfera’*, la *Alkartasuna Fundazioa* organiza sendas jornadas sobre el desarrollo sostenible de Busturialdea, en Gernika el próximo sábado 23 de octubre y en Bermeo el sábado 13 de noviembre.

Expertos economistas y en medio ambiente abordarán las claves para garantizar el progreso de esta comarca protegida, conciliando la competitividad económica, con la preservación y difusión del patrimonio cultural, arqueológico y natural, en una estrategia de desarrollo sostenible.

En la primera jornada, que se celebrará este sábado 23 de octubre en el Elai Alai Aretoa de Gernika a partir de las 11 horas, **Ramón Zallo**, Catedrático de comunicación de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la UPV/EHU, analizará el Proyecto de nuevo Guggenheim en Urdaibai. **Miren Onaindia**, Coordinadora General de la Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y profesora de Ecología en la Facultad de Ciencia y Tecnología de la UPV/EHU, analizará las experiencias de éxito en Reservas de la Biosfera. Y **Antxon Olabe**, economista y Master en Economía y Gestión Ambiental por la Universidad de York (Reino Unido), tratará sobre la Reserva de la Biosfera como fuerza motriz en la transición del País Vasco hacia un modelo de desarrollo ambientalmente sostenible.

Moderará ambas jornadas, abiertas al público, **Sabin Intxaurreaga**, vicepresidente de la Alkartasuna Fundazioa, y ex Consejero del Gobierno Vasco de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Finalmente, en la segunda jornada a celebrar el 13 de noviembre también a las 11 horas, en el Nestor Basterretxea Aretoa de Bermeo, el analista económico **Joseba Barandiaran** expondrá las lecciones a extraer de la crisis financiera para Urdaibai, mientras que Ana Oregi, ex viceconsejera de Ordenación del Territorio y Aguas del Gobierno vasco y directiva de la Unesco Etxea, **Ana Oregi** analizará la compatibilidad de la especial protección ambiental de la comarca con su progreso socioeconómico.